

Teatro Paraíso

TEAM

(Elkarrekin ibilian)

Maxi Rodríguez.

(Los actores van apareciendo en escena individualmente, AITOR marca el ritmo con el ukelele.)

MAITANE y ANDER.-Ados

AITOR y AMAIA.-Bai.

TODOS.-Bizitza joko bat da.

AMAIA.-Ongi.

AITOR.-Bat nator.

MAITANE.-Baina zergatik inork ez ditu esaten arauak?

AITOR.-Nola jokatzen da?

ANDER.-Zer egin behar da irabazteko?

AMAIA.-Edo galtzeko.

TODOS.-Hori da kontua. (*Dejan de tocar y en silencio miran al público.*) Ezta?

(*Ya EN GRUPO, arropados por el ukelele, tararean juntos.*)

1. Infancia, paraíso perdido.

ANDER.-Pausoz pauso bazoaz, konfiantzarekin, urrunera helduko zara eta zure ametsak beteko dituzu. Zure ametsak, bai. Eutsi zure ametsei. Izan ere, askotan, umeak garenean, besteren ametsak ezartzen dizkigute. Ez gara mundura etorri gurasoen ametsak betetzera... gure amestak baizik.

(*Maricarmen, embarazada de ocho meses, en su habitación de hospital; entra Paco exultante.*)

AITOR.-Marikarmen. Zaude, maitea! Hortxe! Hortxe, hortxe!

AMAIA.-Zer?

AITOR.-(*Saca algo del bolsillo y lo muestra ceremonioso.*) Karneta! (*Acaricia la barriga de su mujer.*) Ander: jarri apain-apain. (*La enfoca con la cámara de su móvil.*)

AMAIA.-Zer ari zara? ¿Baina, zer ari zara?

AITOR.-Argazkia, Mari, argazkia.

AMAIA.-Zer argazki, Pako?

AITOR.-Horixe, Marikarmen, argazki bat besterik ez da behar.

AMAIA.-Zer diozu?

AITOR.-Argazki bat besterik ez da behar. Hala esan didate bulegoan: ekarri zure semearen argazki bat, eta bazkide gazteena izango da. Irribarretxo bat, Ander! Kluba harro egongo da zutaz.

AMAIA.-(*Tapando energética su barrigón.*) Ez ba, Francisco, ezetz ba!

AITOR.-Ezetz, zer? Kendu eskuak, mesedez.

AMAIA.-Argazkian ez da Ander irtengo.

AITOR.-Ez, zera!

AMAIA.-Ander ez, ni irtengo naiz, nire sabela, nire tripa handia.

AITOR.-Mari, ez ezkutatu mutikoa! Ez duzu sentitzen? Ikusten zer ostikadak? Zelaira irten eta ostikoka hasteko amorratzen dago! Jarri apain, krak!

AMAIA.-Ezetz, ba, Pako, ezetz, nire sabela ez...

(*Entra la enfermera.*)

MAITANE.-Ederki, Marikarmen. Dena primeran doa. Begira ekografia: ez dago inolako arazorik.

AITOR.-Eh, eeeeh, geldi, egon geldi! (*Dispara la foto a la ecografía.*) Guau, hau bai ona! (*Mirando la pantalla de su móvil.*) Txilena bat!!!

AMAIA.-*(Aterrada.)* Txilena bat? *(Flipando.)* Nola liteke?

AITOR.-*(Didáctico.)* Ander txilena bat egiten ari da. *(La mamá respira aliviada.)* Garbi dago, zera! Aparta dator! Krak bat da, galaktikoa...! Begira, Marikarmen, begira zein guapo atera den!

AMAIA.-¡Ai, beste ostikada bat eman dit!

AITOR.-Tikitaka, Marikarmen, tikitaka! Aita izan ez zena izango da umea, Mari, Messi bat, Messi berria, gure Messi! *(Al borde del llanto, embargado por la emoción.)* bazkide gazteena!

(Pausa. El cuadro se descompone al entrar ANDER en escena gritando: “¡Pasa, pásala ya!” AMAIA saca el balón de su barriga, y entre los dos y AITOR empiezan a combinar botándolo. Es un ritmo colectivo en el que no dejan participar a MAITANE, quien aparece mirando a sus compañeros como si fuera alguien marginal.)

MAITANE.-Umetan, inoiz ez ninduten taldean hartzen. Egia esan, ez nekien zertara jolasten ziren. Hala ere, taldekoa izan nahi nuen. Baina, ez, ez ninduten hartzen. Zain eta zain egoten nintzen, eta ezer ez. Batzuetan, aukera egiten zuena baten faltan geratzen zen, eta orduan deitzen zidaten, beste erremediorik ez zutelako. Eta esaten zuen:

AMAIA.-Zergatik uzten diegu jolasten arraroei?

MAITANE.-Ez. Ni bezalako umeak ez gara arraroak. Besteek nahi dutena nahi dugu: ONARTUAK izatea.

(ANDER se adelanta del resto del grupo, descubre a MAITANE sola y se acerca para hacerle compañía. Saca su merienda y, aunque nota que la niña es superesquiva, trata de compartir con ella.)

ANDER.-Nahi? *(La niña niega con la cabeza. Larga pausa.)* Emango dizut, e! *(La niña se tapa temerosa instintivamente.)* Bokata, diot. Nire bokataren zati bat emango dizudala.

(La niña vuelve a negar en silencio. Pausa. ANDER da un par de mordiscos al bocata y cuando su mamá le llama de entre cajas desaparece dejándole lo que queda de su merienda a la niña. MAITANE también hace mutis, entre conmovida y despistada, con el resto del bocata entre sus manos.)

(AITOR y AMAIA entran en escena simulando el “runrún” de una retransmisión deportiva, en el crescendo de la paródica narración se planta ANDER delante de ellos jugando con unos muñecos que practican ballet. El niño se pone a manipularlos pero su padre, visiblemente enfadado, le grita como un energúmeno.)

AITOR.-Buruhandi! Kendu, buruhandi! Makurtu! Ez dut ikusten! Begira! Ikusi ondo! Ikasi, Ander, ikasi egin behar duzu! Ez zenuen Messi bezalakoa izan nahi?

AMAIA.-(*Tímidamente*) Ez, ez zuen nahi.

AITOR.-Zu, ixo!. (*Al televisor.*) Eta zuk, jo ostikoz, kendu egingo dizute eta! Mugi, mugi, gorantz presionatu behar da, pasa, motell! Jo, jo! Uiii, korner, korner!

(*ANDER deja por un momento sus muñecos.*)

ANDER.-Batzuetan, bizkarra ematen nion telebistari, gurasoak zertan ari ziren ikusteko. Piztia basatien dokumentala ikustea bezala zen. (*Sus padres enmudecen a pesar de gesticular exageradamente y el niño les hace su peculiar doblaje.*)

-¡Uuuuuuh! ¡Ah, uh,ah, ah! Eman, eman, asto alaena!

-Laaasai Pakooo...

-Astapistola, astapistola hutsa. A zer hartza, ikusi duzu? Zerri zikina! ¡Uh, ah, uhhhhh!

-Laaasai Pakooo...

-Hozka horri, tigrea, hozka horri! Uh, ah, ah! Egin jauzi gainera!

-Laaasai Pakooo...

-Arrautzak behar dira, arrautzak, ez dute arrautzarik horiek!

-Ai, Pako, arrazoi duzu, bai!

-Bizkor, tigre; pasa, lehoi; jo ostikoz, eta GOOOOOL! GOOOOOL!

(*Los padres se alejan vociferando. ANDER queda solo en primer plano.*)

ANDER.-Zarata. Zarata gogaikarri hura. Gurasoen builek belarriak ziztatzen zizkidaten. Hasieran, harritu nintzen auzokoak kexatzen ez zirelako; baina konturatu nintzen haiek ere builaka aritzen zirela. Nire auzoan, denek buila egiten zuten. (*El resto de actores recrea el espacio sonoro de un caótico barrio vecinal.*) Zarata guztia nire etxean zegoelakoan nengoen, baina ez: denetan zegoen.

(*¡¡¡Oé, oé, oéeee!!! Con ese clamor futbolero, el padre coloca a ANDER una bufanda de su equipo, el resto de actores -AMAIA y MAITANE- componen la grada de un estadio. AMAIA y AITOR hacen de padres hinchas de equipos rivales.*)

AITOR.-(*Exultante*) Azkenean hemen zaude, seme, futbolaren tenpluan. Aukeratuetakoa bat zara. Egunen batean, zu ibiliko zara zelaian, txapeldun. Seme: zu krak bat izango zara, Messi berria, gure krak! Erlaxatu eta gozatu,

seme.

AMAIA.-Partida hau irabazi egingo dugu!

AITOR.-(*Por lo bajini*) Baita zera ere. (*A su pupilo.*) Baina zer uste dute muturrandi horiek? Zergatik uzten diete gurekin elkartzen? Hantxe egon beharko lukete, beren kaiolan, besteekin. (*Los jugadores imaginarios saltan al campo.*)

AMAIA.-(*Señalando al rival.*) Begira, hor datoz horiek.

AITOR.-(*El padre se pone en pie y alecciona a su hijo. Canta.*) Inoiz ez bakarrik, TALDEAN, inoiz ez bakarrik! Inoiz ez bakarrik, TALDEAN, inoiz ez bakarrik!

AMAIA.-Ea, mutilak, ekin, ekin!

AITOR.-Gogor horiei, mutilak, gutxi dira, eta ustelak!

AMAIA.-¡Ea, mutilak, banda bat baino ez dira eta!

AITOR.-Gupidarik gabe, mutilak: etsaiari ezta urik ere!

AMAIA y AITOR.-Etsai...!

(*Los dos adultos se quedan unos segundos petrificados al descubrir que sus hijos se pasan un bocadillo.*)

AMAIA.-Zertan ari zara?

AITOR.-Ez hartu hori, ez hartu!

(*Pero rápidamente el terreno de juego manda.*)

AITOR.-Ehhhh, ehhh!!!

AMAIA.-Eheee! Zer da hau? Falta, falta izan da!

AITOR.-Baina, zer seinalatu duzu? Non dago falta? Ez du ukitu!

AMAIA.-Ia sudurra hautsi zion! Mesedez! Nola liteke!

AITOR.-Baina zer seinalatu duzu, txoropittoa?

AMAIA.-Oso ondo, arbitro, bai jauna!

AITOR.-Arbitro: zera zara.. zera... zera

ANDER.-(*Salta*) Buruhandia!!!

(*MAITANE se ríe.*)

AMAIA.-Ez egin barre.

AITOR.-(*A su hijo.*) Zer ari zara? Zuk edozeinekin hitz egiten duzu.

(*El adulto se distrae, enfrascado con su hijo, y se pierde el....*)

AMAIA.-GOOOL!!!

AITOR.-Zakurraren putza! Putza!

(*Fin del partido. Ha ganado el rival en el último segundo. Los papás sacan a*

sus hijos de la mano sin darles apenas tiempo a despedirse.)

AITOR.-Goazen!

AMAIA.-Tira!

LOS DOS.-*(Tirando cada uno de su vástago)* Goaaazen!!!

(Cada uno hace mutis por un lado. Uno visiblemente cabreado y la otra eufórica por haber ganado. Tensión evidente entre adultos, de la que los niños - ¡angelitos!- parecen ausentes.)

MAITANE.- Denak zelaira begira zeuden, baina nik berari begiratzen nion. Ez dakit. Hari eskerrak, ni ez nintzen ikusezina. Hura izan zen lehena eskolako jolastokian nire ondoan esertzen *(Evoca el estadio.)* Eta ogitarteko bat elkarrekin jan genuen. Besteak haserre eta builaka ari ziren, elkarri esku eman edo elkarri entzun gabe. Bizitza jokoa da, bai, baina ez niri ez berari ez zitzagun gustatzen jokatzeara.

(La niña se sienta en un banco del parque, saca de su mochila un cuaderno de anillas y se pone a dibujar. El niño entra botando el balón con desgana. Al verlo pasar, la niña hace sonar su bolígrafo en las anillas entre bote y bote. Al niño le divierte, mantienen juntos el ritmo común en clave de absoluta complicidad. Así, el niño -curioso y coqueto- se acerca a la niña. Le pide con gestos que le muestre su cuaderno. Ella, aún muy esquiva, se niega. Él coquetea hasta conseguir descubrir lo que hay en la libreta. Entonces compone tres poses “artísticas” con su balón para que ella le dibuje. En la segunda, suena el teléfono de AITOR, que está sentado en un lateral.)

AITOR.-*(Estalla en una risotada.)* Zer dugu, munstro? Benetan? Handia haiz gero! Jajaja! *(El resto de actores le fusila con la mirada.)* Ejem, barka ezak, motell, moztu egin behar diat. Entseiatzen ari gaituk.

(Continúa la escena. La niña, encantada con su modelo, se entrega plenamente al juego. Ambos miran hacia arriba. AMAIA, en el otro lateral, interrumpe la acción con un brusco estruendo. Los actores la miran con afán recriminatorio.)

AMAIA.-*(Mostrando el palo de lluvia)* Euria ari du. *(Lo mueve con lentitud.)* Euria...

(Se reanuda la escena, El niño se tapa con el balón. La niña, con suma delicadeza, le quita el balón de la cabeza, saca la bufanda de su equipo de la mochila y le “atecha”. El niño, sorprendido, ve como ella parece alejarse pero vuelve sobre sus pasos y se “atecha” junto a él. Los dos “atechados” bajo la bufanda componen una tierna estampa que adquiere su punto de picardía

cuando la niña le regala al niño uno de sus posados y, cuando él recoge su hoja de libreta, le estampa un beso en la mejilla y hace ademán de irse. Sin embargo, el niño bota su balón y ella instintivamente hace sonar su bolígrafo en las anillas del cuaderno. Juntos repiten ese RITMO en común, su RITMO. Los dos se alejan sintiéndolo, marcándolo en común, como si -a pesar de salir cada uno para un lado- ese RITMO COMÚN les hiciera más fuertes, como si cada uno llevara integrado el compás del otro en su mente.)

(AITOR sale a escena, coloca una lámpara, abre un diario y se dispone a sentarse en zapatillas. AMAIA, despistada, continúa moviendo el palo de lluvia. AITOR se sale por un segundo del personaje de padre.)

AITOR.-Hemen, etxean, ez dago euririk.

(AMAIA deja de agitar el palo con un gesto de disculpa. Entra ANDER empapado por la lluvia, con la bufanda de la niña en su cabeza y marcando su RITMO COMÚN. El padre le mira alucinado, no da crédito. De hecho, le observa un buen rato boquiabierto mientras el chiquillo juega ingenuo con su ritmo.)

AITOR.-Ai, hau ere badugu! Baina... *(Grita.)* ¡Marikarmen, zatoz! ¡Marikarmeen!

AMAIA.-Zer gertatzen da?

AITOR.-Begira, begira nola datorren zure semea!

AMAIA.-Baina nola busti zara horrela, maitea? Mela-mela eginda zaude!

ANDER.-Zera, parketik nentorren, eta euria hasi du, eta...

AMAIA.-*(Tirando de él.)* Tira, aldatu arropa hori, neumonia bat harrapatuko duzu eta. Zatoz...

AITOR.-Ehhhhh! Geldi hor, geldi! *(Se paran)* Baina, zer busti eta zer bustiondo? Ez diozu ezer esan behar?

AMAIA.-Esan diot... Arropa kendu eta pijama janzteko.

AITOR.-*(Agarra la bufanda de su hijo y se la tira al suelo.)* Zanpatu hankekin hori! *(Pausa.)* Zanpatu!

ANDER.-Zergatik? Nire lagunarena da.

AITOR.-Ez dago lagunik horretarako. Koloreak bihotzean dituenak ez du lagunik horretarako!

AMAIA.-Ez hasi, Pako.

AITOR.-Zer gertatzen da? Jada ez zara gure taldekoa?

ANDER.-Ni...

AITOR.-Esan, ea, esan! Gure alde zaude, ala muturrandi horien alde? *(De un manotazo quita la bufanda del suelo y la lanza a un lateral dándole a Maitane en la cara. Ella se mosquea, Él se disculpa minimamente pero sigue con su*

interpretación.) Ea, esan!

ANDER.-Ez, zera, ni...

AMAIA.-Ai, Pako: utzi kontu hori.

AITOR.-Uzteko? Hezurrik ez diot utziko osorik, horixe! Baina, ez zara konturatzen, Marikarmen? Bazkide gazteena, zure sabelean zegoenetik gure taldekoa, zortzi hilabete egiterako gure koloreak bihotzean zituena, orain guri traizioa egiten!

ANDER.-Ez, aita, ni...

AMAIA.-Ai, Pako, utz ezazu. Pijama garbia aterako dizut, seme. (*Sale.*)

AITOR.-Uzteko? Baina nola utzi? Aurpegira barre egiten ari zaigu, Mari.

ANDER.-Ez, aita, ni ez...Ni...

AITOR.-Non egon zara?

ANDER.-Entrenatzen.

AITOR.-Josetxok deitu dit! Esan dit ez zarela agertzen entrenamenduetara. Eta badakizu zer esan nahi duen horrek? Aulkian eserita geratu beharko duzula eta ez duzula jokatu! Eta badakizu zer esan nahi duen horrek? Denok pikutara botako gaituzula: zeure burua, ama eta ni!

ANDER.-Nik?

AITOR.-Baina, seme, ez zara jabetzen? Ez duzu ikusten nola bizi garen? Ez duzu ikusten nola gauden? Denok zure zain gaude, zuk aterako gaituzu pobreziatik, zu izango zara Messi berria! Familia osoa zure eskuetan dago! Zure eskuetan ez (*Le coloca el balón en el suelo.*) Zure hanketan, Ander; zure hanketan dago familia osoaren etorkizuna!

ANDER.-(*Acongojado.*) Baina ni, zera... Niri...

AITOR.-Tira, jo ostikoz!

ANDER.-Zer?

AITOR.-Han ez baduzu nahi, hemen entrenatuko zara.

ANDER.-Baina...

AITOR.-Tira, hartu abiada, jaso burua eta sartu ondo hanka. (*Se lo muestra.*)

ANDER.-Eta telebista jotzen badut, zer?

AITOR.-Berdin dio. Milioiduna izaten zarenean telebista asko edukiko ditugu, eta auto asko. Eta nik esango dut: horra Messi berria, nire semea; nire semea da, eta oso harro nago! (*Ander trata de imitar a su padre, el padre se interpone en su carrerilla.*) Honela, seme, tira. Honetarako egina zaude. (*Se abalanza sobre su pierna.*) Urrezko hankagaina duzu. Ai, hankagain hori. Eman, txapeldun! Egin keinu, eta eman hankagainarekin!

(El niño trata de darle al balón pero su empeine se revela, es como si tuviera vida propia y eligiera bailar. Sorprendentemente, lo que iba a ser un saque de falta se convierte en un cómico y vertiginoso ejercicio de ballet. El padre, estupefacto, se lleva las manos a la cabeza.)

AITOR.-Baina, zer egingo dut zurekin, seme? Balleteko gona horietako bat jarri?

ANDER.-Ez, utzi. (*Agarra la tulipa de la lámpara y se la pone en forma de faldita.*) Neronek jarriko dut.

(El padre, hundido, hace mutis con lágrimas en los ojos. El niño posa con el balón y saca de su bolsillo el dibujo que le regaló su amiga. Luego, usando la pelota recupera su RITMO COMÚN que irá in crescendo y -ayudado por el ukekelele- le incita a salir danzando eufórico, con la camiseta por la cabeza en plan futbolista enloquecido, por el imaginario campo de sus sueños.)

(Ese RITMO evoluciona, se convierte en una suerte de percu-corporal que, cuando ANDER recoloca su camiseta, tratará de impartir a AMAIA, su “alumna” en una especie de clase de “danza percusión”.)

ANDER.-Ea, Amaia, ea... Harrrapatu duzu?

AMAIA.-O.K.

ANDER.-Goazen pixkanaka, eta...

AMAIA da un traspiés y se cae. Se enfada consigo misma, ANDER se le acerca afectuoso.

ANDER.-Ea, Amaia.

AMAIA.-Ezin dut.

ANDER.-Bai, badezakezu.

AMAIA.-Errori egiten naiz. Ez duzu ikusten?

ANDER.-Erortzea aukera bat da. Zutik jartzea, ordea, ezinbestekoa.

AMAIA.-*(Lo intenta y no puede.)* Ezin dut.

ANDER.-Ezinezkoa ematen du, lortzen den arte. Amaia...

(ANDER le anima a levantarse con suma sensibilidad, Amaia lo hace. Ander sale, AMAIA queda sola en escena, habla al público con una luminosa sonrisa en sus labios.)

AMAIA.-Ander ezagutzeak bizitza aldatu zidan. Ziurtasuna eman zidan, neure buruaz fidatzen lagundu zidan, eta besteez fidatzen ere bai. Ander lagun paregabea da. Ander da...

AITOR.-*(Entrando)* Amaia, aski da!

AMAIA.-Zer?

AITOR.-Anderrez bakarrik hitz egin behar al dugu?

AMAIA.-Zertara dator hori?

AITOR.-Talde bat gara, ezta?

AMAIA.-Noski. Eta?

AITOR.-Ba guztiok dugula koxkaren bat. Denok gabiltza galdurik zera honetan...

AMAIA.-Bizitzan...

AITOR.-Bai noski. Baina elkartu egin behar dugu, elkarri entzun, entzuten ikasi, zeure buruari eta besteei

MAITANE.-*(Entrando en escena.)* Hara! Begira nor hari den entzuteko esaten! Entseiuetan eskuko telefonoa itzaltzen ere ez daki eta!

AMAIA.-*(Remedándole.)* Zer, munstro? Benetan? Handia haiz, bai horixe, jajaja!

AITOR.-Arratsalde osoa Anderrez hitz egiten jardun gara!

AMAIA.-Eta Maitanez.

MAITANE.-Nitaz? Bai, baina, askoz ere gutxiago.

AITOR.-Zutaz, Anderrez, honako honen arazoez...! Eta ni, ukelelearekin guztia sostengatzen.

ANDER.-*(Aparece y se parte la caja)* Jajaja! Barkatu.

AITOR.-Zeri egiten diozu barre?

ANDER.-Ba, sostengatzen... sostengatzen...

MAITANE.-Tira, egia esan behar bada, asko ere ez duzu jotzen.

AMAIA.-Bai, Aitor: horretan arrazoi dute.

AITOR.-Jo zeuk, hara bestea, jo zeuk!

AMAIA.-Aizu, niri ez hitz egin horrela!

MAITANE.-Ea, lagunok, hemen ez gaude honela eztabaidatzeko.

AITOR.-Ez sartu, zu ez sartu!

MAITANE.-Sartu egingo naiz, gogoak ematen badit! Denbora daramat neure buruari eutsiz, zuk ez duzu-eta ezer kontrolatzen! Aurpegira bota dizkidazu egunkaria eta lepokoa! Antzezle gisa, barka esatea Aitor, erdipurdikoa zara, oso erdipurdikoa!

AMAIA.-*(Terciando)* Bah, tira, talde bat gara, ezta? Anderrez jardun gara, berarekin hasi zelako guztia; gero, besteok atzetik etorri ginen. Ezta, Maitane?

MAITANE.-Bai. *(A Ander.)* Zugatik izan ez balitz, ez ginen hemen egongo.

ANDER.-*(Modesto.)* Denongatik. Hona iristea denon meritua izan da.

MAITANE.-Jakina. Horregatik daukagu kontatu beharra. Baina behar bezala kontatu behar dugu. Ez...

(De pronto AITOR, que había salido a buscar el ukelele, se cruza por el medio tocando su instrumento. Ante el estupor de los demás, empieza a relatar.)

AITOR.-Niretzat, musika, ba, dena da. Lau bat urterekin hasi nintzen musika maitatzen. Oraindik ez nintzen konturatzen ondo, baina garbi neukan zorientsu egiten ninduela. Bai. Musikak nire bizitzari zentzua emanaz hazi nintzen, musikarekin amestuz, baikor izanez, askoz hobeto sentituz. Horregatik gustatzen zitzaidan auzoko lagunekin partekatzea. *(Reitera enfatizando.)*

Auzoko lagunekin. (*Sus compañeros, a regañadientes, se caracterizan para la escena.*) Ilusio handia egiten zidan.

2. Adolescencia, de la alegría a la melancolía.

(*AITOR llega al parque. Sus “colegas” del barrio -unos jevimetaleros de andar por casa- están enfrascados en la “caña” que sale de sus auriculares. Menean la cabeza compulsivamente. AITOR se pone a su lado.*)

AITOR.-¡Iepa! (*Todos pasan de él hasta que hurgando en su mochila saca de la funda lentamente su ukelele. Los “jevis” le miran sin hablar, se dan codazos en un tenso silencio, como si se tratara de una auténtica provocación.*)

ANDER.-Flipatzen ari nauk.

AMAIA.-Zer ba?

MAITANE.-Zer kaka da hori?

ANDER.-Zer duk hori, motell?

Pausa.

AITOR.-Esan nizuen zerbait berria ekarriko nuela, desberdina.

AMAIA.-Zerbait, hi!

MAITANE.-Kaskotik egin al zaik, aizak?

Aitor hace ademán de tocar, los otros se levantan como resortes.

TODOS.-Eh! Eh! Nahikoa diagu, eeeeh!

AITOR.-Baina...

ANDER.-Ez baina eta ez bainondo, motell! Zer: adarra jo nahian, ala?

AITOR.-Soinu berria, desberdina...

AMAIA.-Desberdina, hi!

AITOR.-Ireki pixka bat zuen buruak.

Aitor toca unos acordes, todos se echan para atrás instintivamente.

TODOS.-Eh! Eh! Aski! Eeeeh!

ANDER.-Umemoko, umemoko hutsa haiz! Zer, guri adarra jo nahian, ala?

AITOR.-Ez, ez. Nik...

MAITANE.-Zer haiz, Iparragirre berria, ala?

ANDER.-Ospa, txo, jipoitzea nahi ez baduk!

AITOR.-Ni? Zergatik? Auzokoak gaituk denok.

MAITANE.-Deabruzaleak!

ANDER y AMAIA.-Deabruzaleak gaituk!

AITOR.-Deabruzaleak, bai, baina auzokoak. Eta nik, zera...

MAITANE.-Barrabilak, aizak, barrabilak puztuko dizkiguk!

AITOR.-Baina, zergatik?, zera, ni...

ANDER.-Lehen ez hintzen horrelakoa, txo.

AMAIA.-Baina, orain... mainatu bat ematen duk!

MAITANE.-Mainatu, mainontziiii!

AMAIA.-Mainatiii! Zer duk hik?

ANDER.-Begira-begira jarrita, birrindu egingo haut!

AITOR.-(*Atropelladamente, nervioso*) Beraz, ukelelea ez, beraz... ez? Baina... Zergatik? Ukelelea ez zaizue... Baina.. Zera da... Tira... zera bakarrik... Tira, ukelele bat. Esan nahi dut, zera... Tira, ez dela... Ukelele bar dela, Ulertzen? Ez da ba... Zera... da... ba...

MAITANE.-Ospa hemendik!

AMAIA.-Ospa!

ANDER.-Begira-begira jarrita, birrindu egingo haut!

AITOR.-Baina ni...

MAITANE.-Jada ez haiz gure artekoa!

AITOR.-Ez?

ANDER.-Hi gurea? Ez!

TODOS.-Gure artekoa, jada ez! (*Mutis.*)

Todos se abren, AITOR queda estupefacto. Pausa. Poco a poco, se adelanta y mirando al público toca y habla con un punto de melancolía.

AITOR.-Eta haien taldekoa izateari utzi nion, nireak zein ziren jakin gabe. Nerabezaroa joko-zelai bat da, eta denok elkarren etsai gara. Geure buruaren etsai ere bai. Zelai hura arrasto arraroz beterik zegoen, arriskuguneak eta zigorguneak zeuden, eta besteengandik ihesi nentzen, eta nire taldekoen bila, gora eta behera, zer egin ez nekiela, non jarri ez nekiela, besteek nitaz espero zutenaren mailan nola egon ez nekiela.

ANDER irrumpe, le quita el ukelele, y le empuja hacia el proscenio. A ambos lados de la hipotética cancha, aparecen voces que le tratan de orientar.

MAI.-Ekin, ekin!

AMA.-Ekin, ez gelditu hor!

ANDER.-Kontzentratu, ea, kontzentratu!

MAI.-Baina zer ari zara? Kokatu ondo!

AMA.-Egin zerbait!

MAI.-Aukeratu, joan eta hartu erabakia!

ANDER.-Gainera, gainera! Dena eman behar da! Hesteak bota arte!

AMA.-Pentsatu!

MAI.-Ez pentsatu!

ANDER y MAI.-Egin oraintxe!

AMA.-Segi, segi, jo errematea!
ANDER.-Eman, eman!
AMA.-Ez gelditu, horrela ez duzu bizimodua aterako! Horrela ez, Aitor!
MAI.-Aurrera!
AMA y ANDER.-Atzera, atzera!
AMA.-Ikusten? Ezin duzu arreta galdu!
MAI.-Burua, Aitor, burua! Besteak baino bizkorragoa izan behar duzu!
ANDER.-Bota zeure burua, ez utzi pasatzen!
MAI.-Eman, eman!
AMA y ANDER.-Gai zara, gai zara!
ANDER.-Babestu!
MAI y AMA.-Eraso!
ANDER.-Ikasi!
MAI y AMA.-Lan egin!
MAI.-Baina, zer ari zara? Babesten ala erasoan?
ANDER.-Biharko eguna! Pentsatu biharko egunari buruz!
MAI.-Erosi etxe bat!
AMA.-Zakur bat, zakur bat zuretzat!
ANDER.-Segi, segi, bota!
MAI.-Bota! Zorabiatu egingo zara bestela!
AMA.-Zoaz beste aldera, hor ez duzu ezer egiten!
ANDER.-Ukitu eta zoaz! Hasi ikasten!
MAI.-Ez erre, ez edan!
AMA.-Ez egin garrasi, eta jokatu!
MAI y AMA.-Kontzentratu, Aitor, irabazi egin behar duzu!
ANDER y MAI.-Irabazi, Aitor!
MAI.-Jokatu, eta ez kexatu!
TODOS.-Zergatik egiten dituzu gauzak gaizki?
ANDER y AMA.-Irabazi eta irabazi!
ANDER.-Ea, gai zara, onena zara!
TODOS.-Irabazi eta irabazi eta berriro irabazi, Aitor!

(AITOR permanece reflexivo a pie de escena.)

AITOR.-Irabazi: a zer manía! Baina hau zer da? Nola jokatu behar da? Handitzen zarenean ere, ez duzu ulertzen erabat.

ANDER.-Aski da, Aitor! *(Se ha subido en lo más alto de la tarima. Todos le miran.)* Orain, nire txanda.

AITOR.-Zurea? Zer txanda?

ANDER.-Utzi dizugu zure eszenatxoak sartzen. Orain, jarraitu egin behar dugu!

AITOR.-Jarraitu...

ANDER.-Istorioak aurrera nirekin egiten du, eta irten egin behar dut.

AMAIA.-Anderrek arrazoi du.

MAITANE.-Hara bestea! Zer ari zara zu hemen?

AMAIA.-Ni Anderren atzetik noa, eta Ander irteten ez bada, ni haren atzetik naizenez...

AITOR.-Bai noski. Zu, atzetik, beti atzetik.

MAITANE.-Eta zuri zer?

AMAIA.-*(A Aitor.)* Horrela jartzen zarenean, ezin da entseiatu.

ANDER.-Nahikoa duzue, ezta?

AMAIA.-Anderrek arrazoi du.

AITOR.-Amaia, aski da!

MAITANE.-Horixe! Ez duzu ikusten jeloskor dagoela?

AITOR.-Jeloskor, nor? Ni, jeloskor? Jeloskor, bera! Kontuz ez banabil, ukelelea kentzen dit!

ANDER.-Ez du asko laguntzen, egia esateko.

AITOR.-Zer pasatzen da? Zuk erabakitzen duzu zertan lagundu, zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki?

ANDER.-Istorioari heldu behar diogu, aurrera egin. Ez ukelelea atera eta zure kontutxoak kontatu, istorioa nahaspilatuz.

MAITANE.-Nahikoa egin dugu zuri lagunduz antzezterakoan.

AMAIA.-Egia da, Aitor. Baina aski da; pasatu ere ez duzu egin behar.

AITOR.-Nigatik, zoazte kakatzara; hau, hori, eta zu atzetik.

MAITANE.-Oso zail jartzen ari zarete. Horrela ezinezkoa da aurrera egitea.

ANDER.-Flipatzen ari naiz, benetan.

MAITANE.-Talde bat gara, lagunok, mesedez. Antzerkia elkarlana da, ezta?

ANDER.-Bai, baina, entseiatzera etorri eta horrek nahi dituen eszenak sartzen baditu...

MAITANE.Talde-lanaren gauzarik onena da: beste batzuk ondoan dituzu beti. Eta horrek aukera ematen dizu...

AITOR.-Errua besteei botatzeko!

LOS OTROS.-Zer?

AITOR.-Horrek aukera ematen dizu errua beti beste bati botatzeko, eta beste hori ni naiz kasualitatez.

AMAIA.-Nik ez dizut errua bota, Aitor. Ez dizut inolako errurik bota.

AITOR.-Aspertzen ari naiz hainbeste “elkarri laguntzeaz”.

LOS OTROS.-Zer ba?

AITOR.-Gutako inor ez da garrantzitsuagoa gutako beste inor baino, ezta?

AMAIA.-Horretan arrazoi duzu, Aitor. *(A los demás.)* Horretan arrazoi osoa du.

AITOR.-Ulertzen, Ander? Ulertzen? E, Ander? Argi dago, edo ez dago argi?

ANDER.-Flipatzen ari naiz. Hori harroputz hutsa da.

AMAIA.-Nola harroputza?

MAITANE.-Utziozu, jeloskor dago. Lasai, Ander.

AMAIA.-Zu ez jarri horren alde! Pasatzen ari zarete e! Zergatik jartzen zara

horren alde?

(De pronto, AITOR comienza a marcar un RITMO -puede ser de percu-corporal o con algún elemento escenográfico que empiece a aparecer ya- Es un arranque un tanto agresivo, fruto de su cabreo. Los demás se quedan sorprendidos porque AITOR les transmita de esa manera su enfado. Inesperadamente, AMAIA se pone de su lado. ANDER y MAITANE les miran desafiantes y tocan juntos un ritmo diferente. Irremediabilmente, hay 2 BANDOS. Un careo rítmico prolongado, una batalla de percusión donde el grupo está partido por la mitad y, aunque sea musicalmente, se masca la tensión. Los dos bandos terminan extenuados.)

MAITANE.-A zer pareia!

AMAIA.-Zer gertatzen da? Hau elkarlana da.

MAITANE.-Elkarlana taldea suntsitzea?

ANDER.-Zuen aldetik jardutea zuek biok?

AMAIA.-Elkarlana da adiskidetasunaren muina. Partekatzea, elkar hartzea, elkarrekin eraikitzea...

ANDER y MAITANE.-Elkarrekin, bai!!!

AITOR.-Ardurak eta eginbeharrak banatzea.

ANDER.-Baina ikusi dituzu bi horiek?

AITOR.-Utzi, Amaia, inbidia besterik ez dute eta. Iritsi garenetik, ezin dute eramán gu biok hain ondo konpontzea elkarrekin.

MAITANE.-*(Irónica.)* Hain ondo, bai.

AMAIA.-Aitorrek esan nahi du oso modu berezian konpotzen garela biok.

AITOR.-Guk biok badakigu elkarrekin gurditik tiraka jarduten.

MAITANE.-Eta besteok?

AMAIA.-Aitorrek esan nahi du...

AITOR.-*(Mosqueado.)* Amaia, mesedez! Ez esan nik zer esan nahi dudán, ez dut itzultzaile beharrik!

(A los otros dos se les escapa una risa malévola.)

ANDER.-Baina ikusi al dituzu bi horiek?

AMAIA.-Bai, zer gertatzen da? Oso ondo konpontzen gara eta elkarrekin egotea gustatzen zaigu. Zer pasatzen da: ezin da esan, ala?

AITOR.-Amaia, utziezu.

AMAIA.-Baita zera ere. Orain, nire txanda da.

AITOR.-Zer txanda.

AMAIA.-Nik ere zerbait kontatu nahi dut.

TODOS.-Zuk?

AMAIA.-Zer uste duzue: ez dudala hitz egingo? Kontatzen ari gara zer gogorra egin zaion Anderri bere ametsak betetzearren borrokatzea...

MAITANE.-Noski. Hori da garrantzitsuena. Horregatik elkartu gara besteok

ere.

AMAIA.-Bai, baina zuk zurea gehitu duzu: eskolan zer gaizki pasatu zenuen hain lotsatia izateagatik.

MAITANE.-Anderrek asko lagundu zidan, halaxe da!

AMAIA.-(*Por Aitor.*) Eta nerabegaroko zailtasunak kontatu dizkigu berak.

AITOR.-Eta hori gaizki iruditzen zaizu?

ANDER y MAITANE.-Esan dugu horretaz ez dugula hitz egingo!

AMAIA.-(*Resuelta.*) Ba orain nire txanda da!

3. Edad adulta... o no.

AITOR.-Utzi, Amaia, utzi.

AMAIA.-Ez ba; ez, jauna! (*Al público.*) Esan liteke adin batera iritsitakoan dena konpondua duzula, ezta? (*Sarcástica.*) Heduaroa, zein polita! Esan liteke jada badakizula nola doan hau guztia (*Señala las líneas que marcan "la cancha"*) Jada ez daukagu pilota bota beharrik behin eta berriz, zer gertatzen den jakiteko. Jada ezin gara bizi inguruarekin harrিতuta beti. Badakigu dena, ezta? Badakigu zer egin behar den... Ba ni... (*Solloza, compungida.*) Ni...

MAITANE.-Amaia, utzi, mesedez...

AMAIA.-Ez, Maitane. Oso nahasturik nengoen!

MAITANE.-Besteok bezala. Nola uste duzu geundela besteok? Txikitatik pasatzen nuen gaizki.

AMAIA.-Baina, baina nik orain gutxi arte oso argi neukan nola zen guztia: lan egin dirua irabazteko, eta besteak baino gehiago izan.

MAITANE.-Zortea izan dugu elkarrekin topo egin dugulako, gauzak partekatzeko eta elkarrekin jolasteko...

AMAIA.-Beti gustuko izan dut antzerkia. Badakizu? Niretzat amets bat zen, eta ezin nuen bete.

MAITANE.-Horregatik, zoragarria da biltzea atzerkia egiteko, guk geure antzerkia egiteko. Batez ere, elkarrekin egiteko. Mundua nolakoa den elkarrekin ikasteko.

AMAIA.-Baina ezin gara-eta ados jarri kontatzeko moduan ere: zer esan, nork esan, nork hasi, nork amaitu.

MAITANE.-Entseiatzen ari gara. Normala da.

AMAIA.-Normala?

ANDER.-Noski, normala.

AMAIA.-Ez, Maitane. Nik ez nuen lana utzi, gero hemen egiteko bulegoan egiten nuen gauza bera.

AITOR.-(*Evocando con un rictus de desagrado.*) Bulego hura.

ANDER.-Maitane.

(*Entre Ander y Maitane ayudan a sus compañeros a caracterizarse*)

MAITANE.-Gauza bera? Neska, zergatik diozu gauza bera dela?

AMAIA.-Bai, lanean onena izatera behartzen ninduten, besteak mendean hartzera.

AITOR.-Bai, jakina: niri esango didazu.

AMAIA.-Baina ez zen niregatik. Goikoek bultzatzen ninduten. (*Preparada para la escena. Interpreta.*) Aitor, txostenak amaitu behar dira...

ANDER.-(*La corrige*) Besteak zanpatu, Aitor, zanpatu egin behar dira!

AMAIA.-(*Imitándole*)Zanpatu, Aitor, zanpatu egin behar dira! Salmentak behera doaz, eta hori ezin dugu ametitu. Begira enpresaren grafikoa. Hau hondamendia da, eta zurea da errua!

AITOR.-Nirea?

AMAIA.-Bai, estrategia aldatu behar duzu. Arerioa suntsitu behar da, alde guztietan azpiratu, pasatzeko aukera guztiak moztu, gogor sartu, ostikoz eman alde guztietan. Gu besteak baino gehiago gara, eta erakutsi egin behar dugu! Asko dago jokoa, eta ezin dugu porrot bat ere onartu. Ezta bat ere! Zu funtsezkoa zara haien defentsak erakarri eta zuloak sortzeko, besteok zulo horietatik sar gaitzen. Zanpatu egin behar ditugu, Aitor! Eta ez beldurrik izan itxura egiteko, engainatzeko.

AITOR.-Itxura egin? (*La roza levemente. AMAIA se tira.*) Baina ez dut ukitu ere egin... (*AMAIA se marca tres "piscinazos"*) Baina zergatik bota du bere burua? Zertaz kezkatzen da? Bere burua bota du!

AMAIA.-(*Eufórica.*) Bai, bai, txilibitua jo du!

AITOR.-Zer dio? Zertaz ari da?

AMAIA.-Ez izan beldurrik tranpa egiteko, itxura egiteko. Arbitroak txilibitua jo du! Guk sartuko dugu (*Se prepara para chutar.*) gooola! Eta... (*Lo celebra*) Irabazi dugu! Tok, tok, tok! Irabazi nahi baduzu, engainatzen ikasi behar duzu! Horrela da bizitza, Aitor! Horrela da bizitza, ez zara enteratzen! (*Sale eufórica.*) Tok, tok, tok!

ANDER.-Eta antzeman egiten zen, Aitor!

TODOS.-Zer?

ANDER.-Benetan. Zuek etortzen ikusi orduko, elkar ezagutu genuen egunean, segituan konturatu nintzen oso minduta zetorrela.

AMAIA.-Besteok ere bai!

ANDER.-...Eta gaizki tratatu zutela.

MAITANE.-Besteok bezala!

ANDER.-Horixe sentitu nuen, egia esateko.

MAITANE.-Baina berak atera zuen putzutik, berak aurkeztu zigun. Eta egun hartan behintzat ez zeukan min-aurpegi handirik.

ANDER.-Bai, baina horrelako gauzak antzeman egiten dira mutilen artean.

MAITANE.-Mutilen artean? Bai zozoak zuek, benetan!

AITOR.-Ez dago iraindu beharrik, e!

ANDER.-Tira, garrantzitsuena isotorioa amaitzea da. Ni eskerturik nago. Gure kontraesanak eta guzti, elkarrekin lan egiten ikasi dugu, eta merezi du hori

kontatzea, besteei esatea.

AMAIA.-Hain nahasturik nengoen...

MAITANE.-Utzi, polita, utzi.

ANDER.-Horixe. Konta dezagun nola topo egin genuen. Istorioak aurrera egin behar du.

AITOR.-Magikoa izan zen! Benetan: lehen aldiz ikusi zintuztedanean, hain berezia izan zen...

AMAIA.-Lanean onena izatera behartzen ninduten, besteak zanpatzera.

MAITANE.-Lehen ere esan duzu. Utzi kontu hori.

AMAIA.-Mundu honek besteekin borrokatzera bultzatzen gaitu, elkarrekin lan egitera baino gehiago. Dena ematen nuen arrakasta profesionalagatik. Dena!

ANDER.-Baina, halako batean, zerbaitek klik egin zizun.

AITOR.-Ukeleleak.

MAITANE.-Eta segi ukelelearekin.

AITOR.-Hala izan zen ordea.

AMAIA.-Ez da egia!

AITOR.-Nola ezetz? Ander, jarri hor.

MAITANE.-Zer ari zarete?

(AITOR remeda con una peluca a AMAIA. ANDER hace de su empleado sosteniendo el ukelele.)

AITOR.-Badakizu aingeruak haserre daudela nirekin? Aingeruekin amets egin beharrean zurekin amets egiten dudalako!

MAITANE.-Ez pasatu, e!

AITOR.-Xiiit, Ander!

ANDER.-Aitor. Orain ni Aitor nintzateke, ezta?

AITOR.-Xiiit, Aitor! Bollikao bat bazina, kromoa ere jango nizuke.

AMAIA.-Ez pasatu!

MAITANE.-Ez iseka egin. *(Quitándole la peluca)* Zergatik egiten duzue iseka? Amaia, nola izan zen?

AMAIA.-Aitor. *(Le da el ukelele)* Eseri hor. *(A los otros)* Berak badaki, jakin, nola izan zen.

(AITOR está sentado en su oficina frente al teclado imaginario. Teclea con desgana, muerto de tedio. Tras una leve pausa, decide sacar su ukelele. Toca unos acordes y, al sentirse solo y sin vigilancia, se viene arriba tocando y tarareando -o cantando- una canción romántica. Entra AMAIA -ejecutiva agresiva- Viene cargada de informes y visiblemente estresada. Sin embargo, al escuchar a AITOR se queda prendada. AITOR, ruborizado, trata de esconder su ukelele.)

AMAIA.-Ez!

AITOR.-Barkatu, barkatu.

AMAIA.-Ez gorde.

AITOR.-E?

AMAIA.-Segi jotzen, mesedez.

AITOR.-Baina...

AMAIA.-Hori gustatzen zaizu egitea, ezta?

(AITOR, muy sorprendido y un tanto cohibido, retoma su tema romántico; AMAIA parece perder su insoportable rigidez. Le mira fascinada.)

AITOR.-*(Se corta, un tanto asustado.)* ...Hemen, bulegoan. Sentitzen dut, ez da berriz gertatuko. Hobe dugu kontu horiek begiratzea. Pasatuko didazu txostena?

AMAIA.-Zer?

AITOR.-Zera...

AMAIA.-Kantatzen entzun zaitut eta gainerako guztia ahaztu zait.

AITOR.-Kontuak oso gaizki doaz. Hau erortzen ari da. Ezin dugu lehiatu.

AMAIA.-Eta?

AITOR.-Asko sentitzen dut. Nik ez dut balio honetarako.

AMAIA.-Zer egiten du izar batek hain baxu hegan?

AITOR.-Zer?

AMAIA.-Hain desberdinak gara, Aitor, hain desberdinak!

AITOR.-Horregatik diot. Kontuak ez dira niretzat. Puf! Hainbeste zenbaki batera ikustean... buruko mina jartzen zait.

AMAIA.-Hori bai ona.

AITOR.-Ona?

AMAIA.-Bai, oso ona! Hor dago indarra.

AITOR.-Non?

AMAIA.-Hor, gure desberdintasunetan!

AITOR.-Ez dut ulertzen.

AMAIA.-Bai, bihotza. Erraza da.

AITOR.-Ez dizut ulertzen...

AMAIA.-Nik egiten dut zuk ezin duzuna. Eta zuk egiten duzu nik ezin dudana.

AITOR.-Eta?

AMAIA.-Elkarrekin gauza handiak egin ditzakegu!

AITOR.-Gauza handiak?

AMAIA.-Amets bat baduzu, aurrera; egin borroka haren alde.

AITOR.-E?

AMAIA.-Bai. Elkarrekin bagaude... *(Agarrándole de la mano.)* Baina, goazen hemendik. Ahaztu dezagun besteak zanpatze hori, lehia hori. Elkarrekin bagaude... ez dago ezer ezinezkorik.

AITOR.-Elkarrekin?

(MAITANE y ANDER irrumpen en escena haciendo un ritmo de percusión corporal. Así se recrea la escena del encuentro del grupo, el día en que los cuatro los conocieron.)

AMAIA.-Noski, Elkarrekin zirrarak sentitu. Zirrarak partekatu. *(Se suma.)*

AITOR.-Zirrarak partekatu?

(Se detiene el ritmo.)

AMAIA.-Hau da Aitor. Lehengoan esan nizuen mutil hura!

LOS OTROS.-Kaixo!

(Vuelve la percu-corporal.)

ANDER.-Partekatu.

MAITANE.-Gehitu.

ANDER.-Entzuten jakin.

(Cada uno de los actores se incorpora a primer término mientras el resto subraya su soliloquio con percu-vocal.)

AITOR.-Egun hartan, Amaiak taldekoak aurkeztu zizkidanean, oso harreman berezia izango genuela sentitu nuen. Erritmo hark emozioak sortu zizkidan. Zaila da azaltzen. Iritsi nintzen leku hartan ametsak ere kabitzen zirela sentitu nuen, eta denen artean aurrera aterako genituela.

MAITANE.-Anderrekin eskolan sentitu nuena berriro sentitzea bezala zen. Erritmoa sentitzeak, dantza egiteak zeure buruarekin eta besteekin konektatzen zaitu. Hain ondo pasatzen genuen elkarrekin... erabaki genuen merezi zuela gure istorioa kontatzea, antzerki-lan bat egitea, entseiatzea, eta besteei esatea.

AMAIA.-Aitorrek bere musika jarriko zuen. Anderrek, berriz, dena erritmo eta zirrara bihurtzeko trebezia. Nik, zenbakiekin dudan abilezia, kontuak atera eta hau guztia egin ahal izateko. Eta Maitanek, bere marrazkiekin eta trebetasun artistikoekin, apain-apain jarri gaitu, eszena bakoitzak distira izan dezan.

ANDER.-Eta hemen gaude! Nire lagun hauei esker, txikitan ezarri zidaten helburu futboleroa ahaztu egin nuen, eta lagun berriak egin nituen, elkarrekin sortzeko, elkarrekin lan egiteko eta gure ametsen alde borrokatzeko .

(Coreografía común.)

AMAIA.-Hobe elkarrekin ibiltzea. *(Idem.)*

TODOS.-Eskutik helduta!

AMAIA.-Eta ez.

TODOS.-Bakoitza bere aldetik.

TODOS.-Elkar ezagutuko ez bagenu bezala!

AITOR.-Ez atzerago.

MAITANE.-Ez aurrerago.

ANDER.-Nire ondoan.

AMAIA.-Zatoz nire ondora.

TODOS.-Hartu nire eskua!

MAITANE Y AITOR.-Bizitza ez da alde zurretik antolatu behar.

AMAIA.-Ez!

ANDER.-Ez ba!

TODOS.-Hegan egin behar da!

TODOS.-Bidez gozatu. Gozatu!

TODOS.-Eta jolastu! (*Al público.*) Jolastu!!!

(Realizan juntos una pieza melódica y colaborativa usando tubos de colores, cada uno con una nota musical. El armónico resultado les une aún más.)

AITOR.-(*Fascinado*)Hain ohitua nengoen bakarrik jotzera, ezkutuan, bakarka...
Eta denon artean musika egin dezakegula konturatu nintzenean...

ANDER.-Noski. Bakoitzak berea gehitu eta...

AMAIA.-Bai, bai. Badugu zer esan. Zergatik isildu?

MAITANE.-Denok daramagu hemen barruan erritmoa, musika.

(ANDER se ha empeñado en recoger todos los tubos, se lían con ellos, se le caen de las manos...)

AITOR.-Ander. Utzi hori, utzi!

ANDER.-Baina zuk zer dakizu?

AITOR.-Egin dezagun lana taldean, lagunok.

ANDER.-Tira, utzi kontu horiek!

AITOR.-(*Propone una cadena, las chicas le siguen.*) Ikusten? Lana banatuta, ondorioak ugaritu egiten dira.

ANDER.-Bixkorra zu, bixkorra!

AMAIA.-Ander, ez pasatu.

AITOR.- Bixkorra? Badakizu zer esaten dizudan?

(Se mosquea, y sale corriendo)

TODOS.-Nora zoaz?

AITOR.-Banoa hemendik! (*Sale corriendo. Todos le miran boquiabiertos. Pausa.*)

MAITANE.-Azkar iritsi nahi baduzu, zoaz bakarrik. Urrutira iritsi nahi baduzu, oirdea, zoaz taldean.

AITOR.-(*Con desgana.*) Taldean.

MAITANE.-Bai, Aitor, edozein bide errazagoa egiten da taldean.

Pausa.

AITOR.-(*Volviendo al redil*) Erraza da esatea.

AMAIA.-Zer ba?

AITOR.-Ez dakit. Ikusten denez, ni gabe hobeto zeundekete.

MAITANE.-Ez izan zozoa.

AITOR.-Niri ez irainik egin, e?

ANDER.-Maitasunez esan dizu.

AITOR.-Traba egiten dizuet, argi dago.

AMAIA.-Ez esan hori.

AITOR.-Nire eszenak soberan daude, nire ukelelea soberan, eta ni ere soberan nago antzezten, eta baita materiala jasotzen ere.

ANDER.-Hori Maitanek egiten duelako. Bera arduratzen da.

AITOR.-Eta zergatik hartu behar dituzu zuk tutu guztiak, e? Zergatik?

MAITANE.-Ez izan umeak, mesedez. Dena hain ongi zihoan...

AITOR.-Badakit, baina batzuetan...

ANDER.-Batzuetan, ukelelea burura igotzen zaizu, eta denen errege sentitzen zara.

AMAIA.-Ander, mesedez...

AITOR.-Ez dakit. Agian errege naiz. Agian, saiatu egiten naiz gauzak ondo egiten, onena izateko.

MAITANE.-Ba, oso gaizki, Aitor, oso gaizki.

AMAIA.-Zer ba?

MAITANE.-Ez saiatu taldeko onena izaten. Saiatu taldea onena izan dadin.

AMAIA.-Horretan arrazoi du, Aitor, horretan arrazoi du.

AITOR.-Zu ez sartu.

AMAIA.-Gogoak ematen badik, sartu egingo naiz. Hemen inor ez da denok batera bezain ona. Elkarrekin jardutea da kontua.

AITOR.-Nirekin ez bazinete sartuko.

ANDER.-Uste duzu dena dakizula. Eta hemen inork ez daki dena.

AITOR.-A, ez?

ANDER, MAITANE y AMAIA.-Ez!!!

Pausa.

AMAIA.-Denok dakigu zerbait.

MAITANE.-Eta denon artean asko dakigu.

(Comienzan, de uno en uno, una batucada vocal.)

¡Tira, goazen! ¡Denok batera, denok batera!

(TODOS JUGANDO CON TODOS, el espacio se va modificando, se curva, se empina, se llena de obstáculos... Los actores transitan por él a ritmo, incluyendo bailes y acrobacias.)

MAITANE.- Lurreko arrastoak argi ez badaude ere, lurra mugitzen hasita ere...

AITOR.-Bihurguneak eta bihurguneak agertuta ere, bizitza aldapa gora jarrita ere...

ANDER.-Oztopoz beteta ere...

AMAIA.-Lurra ur bihurtuta ere, urez leporaino egonda ere

TODOS.-Elkarrekin igoko gara, elkarrekin egingo dugu arraunean!

MAITANE.-Hesi guztien gaintik jauzi egingo dugu...

AITOR.-Goraka, bai, eskailera batean bezala...

(Batucada instrumental. In crescendo, hasta el final.)

ANDER.-Bizitza dantza bezalakoa da. Pauso bakoitza garrantzitsua da.

AMAIA.-Zazpi aldiz erorita ere, berdin dio. Zutitu zortzi aldiz!

MAITANE.- Egin barre. Egun galdua da barrerik egin gabeko eguna.

ANDER.-Ametsei baietz esatean, beldurrei ezetz esaten diezu.

AITOR.-Egunak irribarre egiten badizu, zuk ere irribarre egin egunari.

ANDER.-Eta egiten ez badizu?

(Pausa.)

TODOS.-Egiten ez badizu ere bai!!!!

(Retoman la gran BATUCADA.)

AITOR.-Hobe elkarrekin ibiltzea.

MAITANE.-Eskutik helduta.

AMAIA.-Bakoitza bere aldetik baino.

ANDER.-Elkar ezagutuko ez bagenu bezala.

(Silencio. Los cuatro se funden en UN ABRAZO. Larga pausa, no se oye ni el vuelo de una mosca. Nada. ¡Cuánto silencio acompaña a un abrazo! Y con esa paz que deja el estruendo de la percusión, los actores permanecen abrazados mientras la luz decrece y lentamente cae el TELÓN.)

(Opcional BATUCADA DE DESPEDIDA, después de los aplausos, en busca de un cierre de espectáculo más festivo donde quizá podamos integrar al público.)

Telón.

(Gijón, agosto 2016.)